



Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

2014rako plangintza
proposamena



Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
www.egk.org



0. SARRERA	3
1. ETXEBIZITZA ETA ENPLEGUA	4
1.1 ETXEBIZITZA	4
1.1.1 Emantzipa...ZER?	
1.2 ENPLEGUA	5
1.2.1 Gazteak eta enplegua Lan Taldea	
1.2.2 Prekarietatearen aurkako prebentzioa	
1.2.3 “Emperdedores: la cara oculta del emprendizaje”	
1.2.4 Posizionamendu publikoak: lan istripuak eta gaztetxeak	
1.2.5 Finantziazioa bilatu: Gazteen Parte-Hartze Inkubadora	
2. HEZKUNTZA	13
2.1 HEZKUNTZA EZ FORMALA	13
2.1.1 Astialdi Foroa	
2.1.2 Astialdi Sarea	
2.2 HEZKUNTZA FORMALA	15
2.2.1 Hezkuntza Foroa	
2.2.2 Hezkuntza Formaleko gida	
2.3 EGUNEROKOTASUNA	17
2.4 “KANPALEKUA LEGEBILTZARREAN” TXOSTENA	18
3. PARTE HARTZEA	19
3.1 I2013 GAZTEEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO TXOSTENAREN ZABALPENA ETA JARRAIPENA	19
3.2 GAZTE PARTE-HARTZERAKO GIDA	21
3.3 GAZTE ERAGILEEKIN ZUZENeko HARREMANA	22
3.3.1 Material eta gelen lagapena	
3.3.2 Gazte eragileei aholkularitza	
3.3.3 Kide eta eremu berriak EGK-ra hurbildu	
3.4 ERAKUNDE PUBLIKOEKIN ELKARLANA	25
3.5 EGUNEROKOTASUNA	26
4. KOMUNIKAZIOA	28
4.1 ‘RECACCIONA’ BIDEO LEHIAKETA: “GAZTEAK & ENPLEGUA”	28
4.2 ‘GAZTEONTZAT ENPLEGU DUINA’ KOMUNIKAZIO KANPAINA	30
4.3 ‘EKINTZAILITASUNAREN ALDE IZKUTUA’ KOMUNIKAZIO KANPAINA	31
4.4 ‘GAZTEONTZAT PARTE HARTZERAKO ERREZETAK’ BIDEOA	32
4.5 GAZTE ERAGILEENTZAKO GIDA	33
4.6 PIZTU! BULETINA	34
4.7 BERRIZ BERRI POSTERRA	35
4.8 WWW.EGK.ORG WEBGUNEA	37
4.9 SARE SOZIALEN KUDEAKETA	38
4.10 KOMUNIKABIDEEN BITARTEZKO BESTELAKO KANPO KOMUNIKAZIOA	40
4.11 BARNE KOMUNIKAZIOAREN KUDEAKETA	41
4.12 BESTELAKO LANAK	42



5. GASTEIZKO GAZTE CAPITAL	43
5.1 GAZTETOPA	43
5.1.1 European Youth Capital	
5.1.2 Gasteizko gazte plana	
5.1.3 Gazte koordinadora	
5.2 HIRUBURUA	47
6. BAKEA ETA BIZIKIDETZA	49
6.1. BAKE eta BIZIKIDETZA EGK-ko lan ildo bilakatu	49
6.2. BAKE eta BIZIKIDETZA hitzarmena	50
7. PRESIDENTZIA	52
7.1 BATZORDE IRAUNKORRA	52
7.2. LAN TALDE TEKNIKOAREN KOORDINAKETA	53
7.3. BATZORDE EKONOMIKOA	54
7.4. EGKko BATZAR OROKORRA	55
7.5. ELKARLANA ETA ORDEZKARITZA	56
7.5.1. Eusko jaurlaritza	
7.5.2. Aldundiak	
7.5.3. Eusko legebiltzarra	
7.5.4. Batzar nagusiak	
7.5.5. Alderdi politikoak	
7.5.6. Udalak	
7.5.7. Beste erakundeak	
7.5.8. Irudi publikoa	
8. BATZORDE IRAUNKORRA	65
8.1. LAN ARLO TEKNIKOEN JARRAIPENA	65
8.2. ORDEZKARITZA, IRUDIA eta HARREMANAK	66
8.3. BATZAR OROKORRA	67
8.4. GENEROA ETA BERDINTASUNA	68
8.5. III. GAZTE PLANA	69
8.6. INDARTZEN	70
9. EKONOMIA	71



0. SARRERA

Dokumentu honetan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 2014 urtean zehar garatuko dituen egitasmo eta ekintzak jasotzen dira.

Kontseiluaren egoera nolabait egonkortu bada ere, lan ildoak 2013ko martxoan erabakitakoak izaten jarraitzen dute: Enplegua, Etxebizitza, Hezkuntza, Parte Hartzea eta Komunikazioa.

Plangintza honen diseinurako, EGKko elkarten ekarpenak jasotzeko hilabeteko epea utzi zen 2013ko abenduan. Aurreko urteko ebaluaketa eta ondorioak ere kontutan hartu dira, noski, egiten den lanari jarraipena emateko eta batez ere gazteon prekarietate egoerari aurre egin nahian.

Ardatz nagusi horietako plangintza, Kontseiluko Lan Talde Teknikoa eta Batzorde Iraunkorraren artean adostu da Batzarrera aurkeztu aurretik. Horiez gain, hiru ez-ohiko lan ildo azaltzen dira plangintza honetan: Gasteizko Gazte Capital, Bake eta Bizikidetzak, eta Batzorde Iraunkorra.

Lehenengoari dagokionez, EGK eta Gasteizko Udalaren artean sinatu zen hitzarmen bati egiten dio erreferentzia, bertan, gazte parte-hartze prozesu bat abiatu delarik. Asmoa, aurten hitzarmenari jarraipena ematea izango da, horrela, martxan jarri den lan taldea dinamizatzen jarraitzeko eta EGKk Gasteizen duen presentzia egonkortzen jarraitzeko.

Bigarrena berriz, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusitik jasotako eskaintza izan da. Euskal gizarteak bizi duen une historikoari so eginez, eta gazteok gizarte honetan dugun erantzukizun eta garrantzia kontutan harturik, EJTik jasotako proposamena, beste arloekin egiten den bezala, aztertzea erabaki zen. Azken hilabeteotan Batzorde Iraunkorraren bitartez, bi entitate hauen arteko plangintza eta hau aurrera eramateko neurri batzuk azertu dira. Batzarrak plangintza onartuko balu, Kontseiluak lan ildo hau berreskuratuko luke aspaldiko partez.

Azkenik, boluntarioz osatua badago ere, Batzorde Iraunkorrak lehen aldiz bere plangintza propioa izatea erabaki du, honela, urtean zehar helburu ezberdinak lortzeko oinarri bat izan eta Kontseiluko barne koordinazioa eta lana hobetzen jarraituko du. Plangintzan jasotzen diren egiteko ezberdinetatik, Genero-Berdintasuneko nabarmendu nahi da, etorkizunean lan ildo hau berreskuratuzeko ahalegina izango baita.



1. ETXEBIZITZA ETA ENPLEGUA

1.1 ETXEBIZITZA

1.1.1 Emantzipa...ZER?

deskribapena

EtxebizHitza plataforman kolektibo ezberdinekin egin izan du lan urte askotan EGKk, baina behin plataforma honen ekintzak gelditu izan direla eta duela nahiko denbora gazteria eta etxebizitzaren inguruko proiektu propio bat garatzea beharrezkoa zela ikusirik, horretarako lehen pauso txiki batzuk eman ziren 2013an.

Gazteriak etxebizitza arloan lan talde eta proiektu propio bat garatzea beharrezko ikusteko arrazoiak hurrengoak dira:

-gaur egungo egoerak bultzatuta, jabetzako etxebizitzaren desjabetzeek indar handia hartzen ari direlako gizartean, eta ez, berriz, alokairukoak edo poliziaren interbentziorik ez duten beste etxebizitza eskubide urraketek (gazteoi gehiago eragiten digutenak).

-gazteon etxebizitza eta emantzipazio politikak ia existitzen ez direlako, ez behintzat "zuzkidura bizitoki"etaz harago (ikusirik aurreko urtean hauei egindako kritika)

-EGKk gazteria eta etxebizitzaren inguruan egindako azken argitalpena edo proiektua 2010ekoa delako, eta ordutik egoera izugarri aldatu delako.

-Etxebizitza parkearen egoera zeharo aldatu delako azken urteetan, ez baina politika publikoak, eta hauek gazteoi emantzipazioa ez bermatzen jarraitzen dutelako. Azken datuen arabera, gazteen emantzipazioa EAEn %20 baino baxuagoa da, eta datuak txarrera doaz.

Beraz, gazteak eta gazte elkarteetako kideak batzen dituen plataforma edo eztabaida gune bat beharrezko ikusten da.

helburuak

Helburu orokorra

Etxebizitza eskubide subjektiboa defendatu, herri-hiritar denontzako, eta bereziki eskubide hau nabarmenki urratua ikusten dugun gazteontzako. Gazteriaren egoera bereiztua gizarteratu.

Helburu zehatzak

- Gazteak eta gazte elkarteak etxebizitza arloaren inguruan batuko dituen eztabaida gune bat sortu eta egonkortu.
- Administrazio/instituzio ezberdinek martxan jarritako etxebizitza politika publikoak hausnartu eta erakundearen arduraren inguruan interpelazioa bideratu.
- Eztabaida gunean sortutako ekimenei jarraipena eman eta honen funtzionamendua kudeatu eta bultzatu.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Etxebizitza legearen eztabaidan parte hartu.



■ Etxebizitza Plan zuzentzailea hausnartu eta interpelazioa bideratu.

■ Etxebizitza politika lokalak hausnartu eta gazteen aldarrikapenak batu.

■ Eztabaida gunearen ekimenei jarraipena eman.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGKko gazte elkarte eta gazte ezberdinak.
- Beste gazte elkarteak.
- Administrazioa eta instituzioak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Hasierako ekimenei izandako erantzuna gazte elkarten partez: parte hartu duten, egindako hausnarketa sakona izan den, eta abar.
- Administrazio eta kargu politikoen jarrera gazteen proposamen eta hausnarketen aurrean: eskatutako bilerak onartzen dituzten, entzuten dituzten eskaerak, politika publikoetan barneratzen dituzten, eta abar.

1.2 ENPLEGUA

1.2.1 Gazteak eta enplegua Lan Taldea

deskribapena

Luze da EGKtik gazteriaren prekaritatea salatzen dela. Ez bakarrik azken urteotako egoera ekonomikoren ondorioz, baizik eta lehenagotik pairatzen ditugun baldintzengatik ere. Gaur egungo egoerak bereziki gogor jo gaitu gazteok eta bideratzen ari diren enplegu erreformek ez dute gure prekaritatea denboran eta sakontasunean indartuko baino. Sindikatuek eta beste eragile batzuek emandako erantzunak ez dira gutxi izan, baina beharrezkoa da gazteok, gazte perspektiba batetik, guzti hau hausnartu eta erantzun propio bat ere ematea.

Aurreko urtean Gazteria eta Enplegua lan taldea osatu izan da. Diskurtso sakon eta indartsua landu izan da, eta zenbait kargu politikoren aurrean garrantzizko eragile bilakatzea lortu da. Aurrean, ildo bera jarraitu nahi da eta egindako ekimenak areagotu.

helburuak

Helburu orokorra

Gazteriaren perspektiba batetik gazteriarekin loturiko enplegu eta lan munduan bideratzen ari diren politika publikoak hausnartu, administrazioari helarazi eta, eskubide eta



prekarizazioaren aurrean gure egoera aztertu eta gazteok eskubide osoko subjektu bezala aintzakotzat hartzea defendatu.

Helburu zehatzak

- EGK barruko enplegu lan taldeari jarraipena eman eta gazte elkarte-eragile gehiagori zabaldu.
- Gazteen enpleguarako politiken inguruan hausnarketa eta eztabaida gune bat sortu, gazteen prekarizazioan erortzen ez diren alternatibak sortzeko bideak irekiz (Eusko Jaularitzaren Enplegu Programa, Aldundien Gazteen Enplegu planak, Gazte Planak...). Alternatiben bidean, Bizkaiko Aldundiaren eskaerari erantzuteko Praktika onen txosten bat idatzi.
- Bizkaiko Aldundidaren eskariak, hirugarren sektorean gazteek duten enplegugarritasun baldintzen eta eskatzen diren profilen analisia eta hobekuntza proposamenak egitea. Hezkuntza teknikariarekin batera.
- Gazteen lan baldintzen eta hauen ondorioen salaketa publikoa egin, enplegu sistemaren arduradun direnen ardura interpelatuz.
- EGKren baitan material propioa garatu.
- Administrazio gazteriaren artean enplegu arloan zubi lana egin.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Bizkaiko Aldundiko Gazteen Enplegu Plana** hausnartu eta Aldundiarekin harremanak. Plan honen arduradun eta gazteria arduradunekin bilera egin.
- Eusko Jaularitzaren Enplegu Programa** hausnartu eta Enplegu Zuzendariarekin bilerak egin, gazteen iritzia helarazteko.
- Gazteen gustuko **proposamenak** bideratu.
- Lan Taldearen ekimenei jarraipena eman.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE	
[Pink bar]												
	[Dark red bar]					[Dark red bar]			[Dark red bar]		[Dark red bar]	
						[Purple bar]						
[Blue bar]												

hartzaileak

- EGK barruko enplegu lan taldea (CCOOgazteak, JSE, FVJE, EzkerAnitza, JOC, Iratzarri, Ikasle Abertzaleak, Ekuador Etxea, eta abar.)
- Sindikatuak eta Enplegu arloko jendarte eta gazte taldeak.
- Administrazio/instituzio ezberdinak eta bereziki enplegu eta gazteria arloko arduradun politikoak.
- Jendarte oro har eta gazteak bereziki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Lan taldearen bideratzea eta bertan elkarten parte hartzea.
- Egindako hausnarketan sakontasuna eta landutako ekimenen bideratzea.



- Lan taldearen parte hartzea EGKren enpleguko beste ekimenetan.
- Administrazio eta kargu politikoen jarrera gazteen proposamen eta hausnarketan aurrean: eskatutako bilerak onartzen dituzten, entzuten dituzten eskaerak, politika publikoetan barneratzen dituzten, eta abar.
- Proaktibitatea eta bideratutako eztabaida eta hausnarketaren sakontasuna.

1.2.2 Prekarietatearen aurkako prebentzioa

deskribapena

Azken hamarkadetan, eta bereziki azken urteotan gazteen enplegua sustatzeko aitzakipean gure lan prekarietatea sustatu da baita ere. Larriena, prekarietatea sustatzen duten neurriak administrazioetik bertatik bultzatu izan direla askotan. Alabaina, administrazioa ez da beti jabetzen haien ekimenekin bultzatzen duten egoeraz eta askotan, esanda ere, bere horretan jarraitzen dute.

Horregatik guztiagatik, administrazioari zuzendutako ekintzak bideratu beharra dago. Ekintza hauek gazteriaren enplegua sustatzeko neurrien arduradun eta politikariei zuzenduak izan beharko lukete bereziki, hauek gazteen prekarietatearen inguruan ezagutza eta sentzibilizazio handiagoa izateko eta horrek haien jardueran eragina izateko, ondorioz, gazteen prekarizazioa murrizten lagunduz.

helburuak

Helburu orokorra

Gazteen lan prekarietatearen inguruan gizartea eta enplegu politika publikoetan eskumenak dituzten politikari eta teknikariak sentzibilizatzea, prekarietate hau sustatzen duten ekintzak ekiditzen lagundu.

Helburu zehatzak

- Politikari eta teknikarientzako sentzibilizazio saioak prestatu eta eskaini.
- Gizarteari begira sentzibilizazio kanpaina bat egin gazteriaren prekarietatearen inguruan.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Sentzibilizazio saioak prestatu.
- Sentzibilizazio saioak eskaini politikari eta enplegu teknikariei.
- Kanpaina prestatu.
- Kanpaina gauzatu.
- RecAcciona lehiaketa (komunikazio arlokoa, aurten “gazteak eta enplegua”)

**Kronograma**

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Enplegu eta gazteria arloetako politikari eta teknikariak.
- Sindikatuak, gizarte eragileak eta gazte eragileak.
- Gizartea oro har eta gazteok bereziki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Bideratutak kanpainak jasotako erantzuna, gazteen eta komunikabideen artean.
- Sentzibilizazio saioen arrakasta (zenbat egin diren, kalitatea...)
- Politikari eta administrazioari interpelazioak emandako fruituak

1.2.3 “Emperdedores: la cara oculta del emprendizaje”

Azken urteotan gazteriaren langabeziaren soluzioen inguruko diskurtsoak bi ildo nagusi hartu ditu, eta bi ildo hauek bideratzen ari diren politika publikoetan indar handia hartzen ari dira: EKINTZAILETASUNA eta ATZERRIRA LAN BILA JOATEA.

Hala ere, gaur egungo eredu sozioekonomikoaren barruan, bi soluzio hauek ondorio latzak izan ditzakete gazteentzat, bai behintzat politika publiko bezala bultzatzen direnean (aukera pertsonala denean, aitzitik, guztiz errespetagarria), ez baitira eskubideen urraketan erreparatzen duten politika publikorik, baizik eta soluzio hauen bultzatzean oinarritutakoak.

Beharrezkoa da, beraz, hauen inguruko hausnarketa bat egitea eta beraien beste aurpegia gizarteratzea. Horren harira pasa den urtean SOSgazteak proiektua bideatu zen eta ekintzaitasunaren inguruko hausnarketareki hasi zen. Aurten bukatu beharko da.

deskribapena

Ekintzaitza politika publiko bezala lantzearen ondorioen inguruko hausnarketa eta gizarteratze kanpaina: ekintzaitzaren ikuspuntu kritikoa azalerratzeari. Proiektu hau SOS Gazte Atzerriratuak proiektuarekin bat dator eta honen ostean egingo da, bestea bezala, komunikazio arloarekin elkarlanean.

Gazte ekintzaile eta beste gazteekin elkarrizketa ugari egin dira jada, elkarrizketa gehiago egin beharko dira eta ekintzaitza politika publikoen azterketarekin jarraitu, gero ondorioak gizarteratzeko.

helburuak



Helburu orokorra

Ekintzailtza eta autoenpleguaren aitzakipean aurrera eramandako politika publikoek gazterian sortarazten dituzten eskubideen urraketa eta beste ondorioen salaketa egitea, izan ditzaketen alde on eta txarrak azaleratuz.

Helburu zehatzak

- Ekintzailtasunaren inguruko politika publikoen argiak eta itzalak hausnartu.
- Instituzioen ardura interpelatu.
- Gazteen ahotsa bideratu gai honetan.
- Ondorioak gizarteratu eta gazteen egoera jakinarazi.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Gazteen eta gazte elkarten ahotsa batu (aurreko urteko lanarekin jarraituz)
- Ekintzailtza politika publikoen hausnarketa bideratu (aurreko urteko lanarekin jarraituz)
- Ondorioak landu.
- Ondorioak gizarteratu eta politikariei aldarrikapenak helarazi.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
■											
■											
			■								
					■						

hartzaileak

- EGK barruko elkarteak eta berezi bizi-baldintzen inguruan lanean dihardutenak.
- Sindikatuak, gizarte eragileak eta gazte eragileak.
- Gizartea oro har eta gazteok bereziki.
- Kargu politikoak eta administrazioa.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Bideratutak kanpainak jasotako erantzuna, gazteen eta komunikabideen artean.
- Garatutako diskurtsoaren kalitate eta sakontasuna.
- Politikari eta administrazioari interpelazioak emandako fruituak

1.2.4 Posizionamendu publikoak: lan istripuak eta gaztetxeak

deskribapena

Urteak dira EGKk badituela martxan bi gairen inguruan posizionamendu publikoak egiteko protokoloak: gaztetxeen uztaizte ostekoa eta lan istripu baten ondoriozko gazte baten heriotzaren ostekoa.



Gaztetxeak: 2012an, 31. batzar orokorrean onarturiko protokolo berrituari jarraipena emango zaio.

Lan istripuak: Lan istripu baten ondorioz gazte bat hiltzen den bakoitzean, heriotza bera eta gazteon lan-heriotzen errudun den prekarizazioa salatzeko adierazpen publikoa egitean datza protokolo hau. Batzorde iraunkor eta komunikazio teknikariarekin batera garatzen etorri da proiektua azken urteotan, baina gaur egungo egoerak testuaren zenbait aldaketa eta protokoloaren eguneratzea eskatzen du, ahal izatekotan lan talde orokor baten barruan garatuta.

Horrela ba, protokoloa eguneratzen den bitartean orain arteko moduan, EGK-k dituen hedabide propioen bidez eta bestelako hedabideen bidez, EAEn gazte bat lan istripu baten ondorioz hilda suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egingo da, prentsa ohar baten bitartez.

Aurreko urtean proposatu zen protokoloaren berritzea ere, baina denbora faltagatik egikaritzea ezinezkoa izan zelarik, aurten berreskuratzen da ekimena. Gainera, lan munduarekin proiektu ezberdinak proposatzen direnez, hauek berritu nahi den diskurtsoa mamitzen lagunduko dute.

Protokoloaren onarpena batzarretik pasa beharko da.

helburuak

Helburu orokorra

Maiztasunez gertatzen diren eta gazteoi bereziki jotzen diguten gertaerak eta haien arrazoiak publikoki salatu.

Helburu zehatzak

- Hiri, herri eta auzoetako eraikin hutsak biziberritzen dituzten gazteon autogestioan oinarritutako proiektuek gizartearen eraikitzearen duten garrantzia azpimarratu eta beraberritzearen parte hartzeari babesa eman.
- Gazte langileen lan istripuen ondorioko heriotzen errudun diren prekarizazio eta beste lan baldintzak salatu.
- EGK-k dituen hedabide propioen bidez EAEn gazte bat lan istripu baten kausa hilda suertatzen den bakoitzean salaketa publikoa egin.
- Protokoloa eguneratu, aberastu eta idatziz jaso.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Lan istripuen ondorioko gazte heriotzen salaketa
- Protokoloaren eguneratzea bideratu.
- Protokoloa idatziz jaso.
- Gazteteen uztaraztean protokoloari jarraipena eman

**Kronograma**

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK barneko taldeak.
- Gizartea orokorrean, eta gazteak bereziki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Ekintzaren jarraipena.
- Inpaktu komunikatiboa.
- Berritutako protokoloaren diskurtsoaren kalitatea eta aberastasuna.

1.2.5 Finantziak bilatu: Gazteen Parte-Hartze Inkubadora**deskribapena**

Azken urteetan EGKk Europar Komisioak bultzatutako Juventud en Acción programan dirua eskatu du proiektu ezberdinetarako. Programa honetatik eman izan diren dirulaguntzak gero eta urriago izanik, eta aurrean Erasmus+ programaren barruan sartu delarik, ezin daiteke jakin finantziak iturri hau irekita jarraituko duen. Horregatik, beste diru iturri batzuk bilatu beharra dago, azken urteetan administrazioek dirua proiektu konkretuetarako ematen dutela jakinda.

Honen harira, "Gazteen Parte-Hartze Inkubadora" proiektuaren ideia sortu da, EGKk lantzen dituen arloen zeharkakotasun ikuspuntu batetik abiatuta. Proiektu honek, adin tarte baxueneko gazteei elkarteak eta EGKren arloak hurbiltzea bilatzen du, eta baita normalean ahots gutxien duen gazteria tarte honen zeresanak politikariei helaraztea.

helburuak**Helburu orokorra**

EGKko alorrak eta eginkizunak indartuko dituzten proiektuak garatu finantziak propioa bilatuz.

Helburu zehatzak

- EGKko arlo ezberdinekin batera "gazteen parte-hartze inkubadora" proiektua diseinatu eta honen bidegarritasuna aztertu, bereziki Parte-Hartze arloarekin.
- Finantziak iturri ezberdinak aztertu eta eskaerak bideratzea baloratu.



ekintzak eta epeak (kronograma)

Uztaila eta abuztuan zehar.

hartzaileak

- EGK barneko Batzorde teknikoa.
- EGK barneko elkarteak.



2. HEZKUNTZA

2.1 HEZKUNTZA EZ FORMALA

2.1.1 Astialdi Foroa

deskribapena

Astialdi Foroa EAEko elkarte eta eragile ezberdinen elkarlanerako gunea da. Lantalde honek, Euskadiko Astialdiaren garapena bultzatzea du helburu, elkarren arteko koordinazio – bitartekaritza, ekimenen oinarritzko aholkularitza, elkarren arteko hausnarketa, formazioa eta sentsibilizazioa abiapuntutzat hartuta. Astialdiari lotutako elkartegintza indartu nahi da, baita balioetan heziketa eta astialdiaren bitarteko gizarte eraldaketa bermatutako ekimenak bereziki sustatu ere.

Lana bideratzeko, 3 Lurraldeetan banatzen da, bakoitzean foro bana dagoelarik. Denei eragiten dieten arloetarako ordea, guztiak biltzen dira.

helburuak

Helburu orokorrak:

- Astialdi Foroko lan taldea koordinatzea eta sendotzea.
- Astialdiaren zabalpena eta aldarrikapena.

Helburu zehatzak:

- Esperientziak elkartrukatzea.
- Erakunde publikoekin bitartekaritza egin.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- 3 Astialdi Foroen batzarrak koordinatu.
- 3 Astialdi Foroen topaketa.
- Udako ekintzen eskuorria.
- Zabalpen ekintzak burutu.
- Astialdiko ikastaroen kanpaina.
- Eskolen lan-taldea.
- Astialdiko lan-burtsaren oinarriak finkatu.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
[Pink bars representing 3 Astialdi Foroen batzarrak koordinatu]											
[Dark purple bars representing 3 Astialdi Foroen topaketa]											
[Light purple bars representing Udako ekintzen eskuorria]											
[Cyan bars representing Zabalpen ekintzak burutu]											
[Dark blue bars representing Eskolen lan-taldea]											
[Yellow bars representing Astialdiko lan-burtsaren oinarriak finkatu]											

**hartzaileak**

- Astialdi Foroko elkarteak eta eragileak.
- Gizartea
- Instituzio-Administrazioa.
- Jendartea eta gazteria bereziki

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Ekintzak gauzatzea.
- Helburuak betetzea.

2.1.2 Astialdi Sarea**deskribapena**

Euskal Herriko Haur Nerabe eta Gazteekin, gizarte esku-hartzean eta astialdi hezitzailean diharduten erakundeen sarea da.

2012an sortu zen Astialdi Foroko partaide diren elkarte batzuen eskutik eta EGKk koordinazio bilerak burutzen ditu, Foroa eta Sarearen arteko zubi lana eginez eta elkarren arteko hausnarketak bideratuz.

helburuak

- Astialdiko Arloa eta elkarteak 3. sektore sozialeko arlo gisa finkatu.
- Astialdiko eskola, federazio eta gainontzeko eragileen lana defendatu eta aldarrikatu.
- Astialdiko erakundeek gizarte esku-hartzeko egituretan duten zeregina aztertu.

ekintzak eta epeak**Ekintzak**

Bilerak

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Astialdi Foroko elkarteak
- Administrazioak
- Gizartea

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak



- Egin diren bilera kopurua eta eraginkortasuna.

2.2 HEZKUNTZA FORMALA

2.2.1 Hezkuntza Foroa

deskribapena

Unibertsitateko taldeak eta ekimenak gazte elkartegintzaren zati garrantzitsu bat dira, beraien funtzionamendu propio, behar eta desio zehatzekin. Hezkuntza arlotik harremana sortzea eta garatzea lortu nahi dugu eta, horretarako, EGK-k dituen lanerako espazioak eskaini eta elkar ezagutzan sakondu eta elkarlanerako aukerak indartu nahi ditugu, kontseiluak beste gazte elkarteekiko dituen betebeharrak eta funtzioak beraiekin ere betez.

Honetarako, ikasle elkarte ezberdinez sortutako Hezkuntza Foroa sortu zen.

helburuak

Helburu orokorrak

- Hezkuntza formaleko elkarteak identifikatu eta harremana lortu.
- Hezkuntza formaleko lan talde egonkorra sortu eta mantendu.
- Hezkuntza formaleko instituzio eta arduradunekin harremana eta elkarlana hasi.
- EGK-ren Hezkuntza ereduaren diskurtsoa garatu.
- Ikasle elkarteentzako laguntza eta onarpena administrazioei eskatzea.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

■ Hezkuntza Foroko batzarrak koordinatu.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
■	■	■	■	■					■	■	■

hartzaileak

- Ikasle ez-elkartuak.
- Unibertsitate ezberdinetako
- ikasle elkarteak.
- Administrazioak.
- Ikasle kontseilu edo biltzarrak
- Unibertsitateko beste eragileak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak



- Lan-taldearen egonkortasuna (bilera kantitatea eta kalitatea).
- Aurrera eramandako proiektu eta eztabaiden eraginkortasuna.
- Parte-hartzaileen ebaluaketa.
- Foroaren jarraitasuna.

2.2.2 Hezkuntza Formaleko gida

deskribapena

Hezkuntzan formalari behar bezalako zabalpena eman nahi zaio 2014 urte honetan zehar. Horretarako Hezkuntza Foroa lan-taldearen bitartez proiektu bat sortuko da arlo honen zabalpenerako. Proiektuaren gaia zehazteke dago; besteak beste, Unibertsitatea 2015 estratejiaren ingurutxo txostena zabaltzea, ikasle elkartegintza eta parte-hartzea unibertsitatean aztertzea eta bultzatzea, hezkuntza aukera ezberdinak ezagutzera ematea,...

Hau izango da nolabait lan-taldearen 2014ko proiektu nagusia beste lan ildo batzuekin batera.

helburuak

Helburu orokorrak

- Ikasle elkartegintzaren arteko harremanak sortu eta indartu
- Hezkuntza Formalari eragiten dieten gaiak eztabaidatu eta landu.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Gaia definitu.
- Informazio bilketa.
- Diseinua.
- Argitalpena eta zabalpena.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Unibertsitateetako ikasleak
- Gazteak
- Administrazioak



- Unibertsitateko eragileak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Gazteen erantzuna.
- Ikasle elkarten balorazioa.

2.3 EGUNEROKOTASUNA

deskribapena

Arlo bakoitzaren lan zehatzetatik aparte, teknikariok egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dugu: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; materiala, dokumentazioa, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu...

helburuak

- Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eraman.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

■ Egunerokotasuneko lanak

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Lantalde teknikoa
- EGK-ko elkarteak
- EAE-ko elkarte sareak
- EAE-ko administrazioak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Hobekuntzarako proposamenak jaso.



2.4 “KANPALEKUA LEGEBILTZARREAN” TXOSTENA

deskribapena

“Kanpalekua Legebiltzarrean” proiektuaren ondorioak txosten batetan zabaldu nahi dira. Irakurtzeko erraza den txosten batetan (GazteEkin! Proiektuko txostena bezalakoa). Honen bitartez bertaratu ez ziren politikariei, parte-hartzaileei, interesa duen edonori informazioa helarazteko aukera izango dugu, betiere, bideoen euskarriez lagunduta.

Topaketetan adierazi zen bezala ekimenari jarraitasun bat emateko modu bat bilatu nahi da; informazio garrantzitsuena eta eraginkorren abildu gerora bertako proposamenak gauzatzeko helburuarekin.

helburuak

- “Kanpalekua Legebiltzarrean” ekimenean jasotako ondorio eta proposamenenak gizarteratu.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

■ Txostena egin.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK-ko elkarteak
- Parte-hartzaileak
- EAE-ko administrazioak
- EAEko elkarte eta sareak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Txostenaren zabalpena.
- Bertako proposamenen gauzatzea.



3. PARTE-HARTZEA

Parte-hartze arlo berria sortu zuen EGK-k 2013ko uztailean, "Indartzen" plan estrategikoari, martxoko asanbladan onartutakoari eta 2013ko plagintza orokorrean jasotakoari jarraipena emanez. Gaztaroan parte-hartzea berezko errealitatzat jotzen du EGK-k, interes eta garrantzi handikoa dena, gazteen bizitzetan eta euren garapen sozio-ekonomiko, kultural eta pertsonalean eragina duena. Gazteriaren Kontseiluaren baitan parte-hartzerako berezko arloa sortu izana ikusmolde honekin bat dator.

Parte-hartze arloak gazteen partaidetzaren sustapena du helburu, eta bere zeregina proaktiboa da. Horretarako a) jardueren bidez parte-hartzea era praktikoan bultzatzeaz gain, b) gazteen eta parte-hartzearen errealitatea jaso, hausnartu eta ezagutu behar ditu. Hala, ondorioak eta gomendioak izango dituzten aldizkako neurketak eta ikerketak burutzea izango da arlo honen eginkizuna.

Honen ondorioz lan teoriko-praktikoa da parte-hartzearen arlokoa, askotan bulegotik kanpo egingo dena. Gazteen inplikazioaren inguruan kalitatezko ezagutza handitzen den heinean, eraginkorragoa den partaidetza bultzatu eta sustatuko da.

3.1 I2013 GAZTEEN PARTE-HARTZEARI BURUZKO TXOSTENAREN ZABALPENA ETA JARRAIPENA

deskribapena

Parte hartzeko, eta honekin batera, parte ez hartzeko gazteek dituzten arrazoiak eta motibazioak ezagutzeko nahian, ikerketa bat (I2013) burutu zuen iaz EGK-k. Parte-hartzearen egoera eta, ondorioz, gazteen nortasuna, egoera sozioekonomiko, kultural eta politikoa, bizimoldeak eta beste ezaugarri sozialak hurbiletik ezagutzea izan zituen helburu I2013k.

Parte-hartze arlotik bultzatuta, ikerketa honek estandarizatuta dauden tresna kualitatiboak erabili zituen errealitate sozial hau hobeto ezagutzeko, eta ikerketa osoan 75 gazte eragilek eta 100 gazte baino gehiagok parte-hartu zuten.

I2013ak lortutako diagnostikoa eta proposatutako ondorioak eta gomendioak aurkeztea, zabaltzea eta sakontzea izango dira aurtengo zeregin nagusiak. Horretarako EGK-k eskura dituen baliabideak erabiliko ditu eta lan honetan laguntzeko beste erakundeekin akordioak lortzen ahaleginduko da.

Zabalpen lanari dagokionez, komunikazio arloarekin batera egingo da.

helburuak



Helburu orokorra





I2013 ikerketan jasota dagoen analisi osoa modu egokian zabaltzea, hots, lortutako diagnostikoa, ondorioak eta gomendioak praktikara eramaten hastea. Honekin batera, egindako lanari sakontasuna eman, diagnostikoari lotutako ikerketa berri baten bitartez. Azken helburu hau posible ez bada, kalitatezko jardunaldiak edo hitzaldiak antolatzea.

Helburu zehatzak






























- Txostenean jasotakoa modu erakargarrian gizarteratzea, “Parte-hartzerako errezetak” bideoaren bidez.
- Bideo zein txostena aurkeztu eta bidaltzea eragile, instituzio eta komunikabideetara.
- Gazteen Euskal Behatokiarekin (GEB) I2013ari sakontasuna eta jarraipena emateko proposamen kuantitatibo bat lantzea.
- Ikerketa kuantitatibo berri bat posible ez bada, GEBrekin parte-hartzearen inguruko jardunaldiak edo hitzaldiak prestatzea.
- Zeregin guzti hauetan gazteen parte-hartzerako dauden baldintzak zein inplikatzeko forma ezberdinak identifikatzea eta kontuan hartzea.
- Ondorioak zein gomendioak EGK-n aplikatzen hastea, barneko zein kanpoko eremuan.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

-  Txostenaren edizioa eta aurkezpen publikoak
-  “Parte-hartzearen errezetak” bideoa
-  Gazteen Euskal Behatokiarekin
-  Ondorioak eta gomendioak aplikatu EGK-n eta eragileekin

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											
											

hartzaileak

- EGK-ko kide diren elkarte guztiak.
- I2013an parte hartu zuten eragile guztiak
- Parte hartzen duten gazteak eta gazte eragileak oro har
- Gazteak orokorrean
- Euskal Gazteen Behatokia, Eusko Jaurlaritza (Kultura Saileko Kirol eta Gazteria Zuzendaritza, bereziki), BFA, AFA eta GFA.
- Jendarte orokorrean

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- I2013 txostenari, gazte eragileen, administrazioen eta komunikabideen partetik jasotako erantzuna.



- “Parte-hartzerako errezetak” bideoari harrera eta beronen zabalpen-maila.
- Euskal Gazteen Behatokiarekin lortutako akordioak eta ekintzak (ikerketak edota jardunaldiak).
 - A. Parte-hartzaileen kopurua
 - B. Kalitate-maila
- Urte amaieran neurrien eta gomendioen aplikazio-maila.

3.2 GAZTE PARTE-HARTZERAKO GIDA

deskribapena

Luze da EGK-tik gazte elkartegintzarako gida bat eskatzen dela, talde bat sortzeko eta garatzeko gazteek eta gazte eragileek dituzten ohiko galderak erantzungo dituen. Azken urteotan bai testuinguru legal-administratiboa, eta baita parte-hartzea gauzatzeko moduak ere aldatu dira. Honen ondorioz, orain arte erabili izan diren dokumentuak zahartuta geratu dira eta gida berri baten beharra gero eta nabariagoa da.

Aurten EGK-k aldaketa horiek kontuan hartuko dituen gida berri bat eskaini nahi die gazteei eta gazte eragile mota guztiei, zuzena den informazio gaurkotua jasoz.

Lan hau Komunikazio arloarekin batera egingo da.

helburuak

Helburu orokorra

Elkartegintzaren arlo praktiko, tekniko eta legalaren inguruko ohiko galderei erantzunak ematen dizkien gazte eragileentzako gida bat idatzi eta zabaltzea. Talde bat sortu nahi duten gazteei, gazte elkarteei, bestelako errealitate formalei, mugimenduei eta errealitate ez-formalei zuzendutako gida izango da hau.

Helburu zehatzak

- Gazte talde bat sortzeko eta garatzeko dauden ezaugarri eta prozedura praktiko, tekniko eta legal-administratiboak sakonki ezagutu eta jasotzea.
- Lortutako informazioarekin, ohiko galderei erantzun sistematizatua ematea, talde bat sortzeko bidea errazteko nahian.
- Errealitate ez-formalak ere jaso, errealitate hauen baldintzak azalduz.
- Gidari esker, diagnostiko bat edukitzea zer aldatu behar den jakiteko eta aldarrikatzeko.
- Aspalditik EGK-k eduki nahi izan duen gida bat lortzea, Kontseiluaren eraginkortasuna lagunduz.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Dokumentazioa jaso, testuinguru legal-administratiboa ondo ezagutzeko.
- Elkarten kezka eta dudak jaso
- Administrazioekin bildu, bereziki Eusko Jaurlaritzako elkarte eroldaren zerbitzuarekin
- Gida idatzi.



Gida aurkeztu eta zabaldu

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK erakunde gisa.
- Gazte eragile mota guztiak: errealitate formalak eta ez-formalak.
- Gazteak, bereziki elkarte bat sortu nahi dutenak.
- Jendartea oro har.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Lortutako informazioaren kopurua eta kalitatea
- Gidaren eraginkortasuna eta galderei erantzuteko ahalmena
- Gidak izandako harrera eta zabalkuntza
- EGK-ren balizko aldarrikapenentarako baliagarria izatea

3.3 GAZTE ERAGILEEKIN ZUZENKO HARREMANA

3.3.1 Material eta gelen lagapena

deskribapena

Aurreko urteetan material eta gelen lagapenaren ardura nagusia Komunikazio eta Administrazio arloen esku geratu izan da. Lan ona egin den arren, zeregin honen erantzukizunak ondo definitzea eta sistematizatzea guztiz beharrezkoa da. Gainera, elkarteekiko harremanei dagokienez eta EGKren erabilgarritasunari begira, material eta gelen lagapenak dituen potentzialitateak kontuan hartzeko modukoak dira ere.

Lan hau EGK-ko gainontzeko arloekin koordinatuko da.

helburuak

Helburu orokorra

EGK-ren material eta gelen lagapenaren arlo guztiak definitzea eta sistematizatzea. Sortzen diren harremanak EGK-ren sarea indartzeko erabiltzea, Parte-hartze arloaren bidez.



Helburu zehatzak

- Material eta gelen lagapenerako prozedura, dokumentuak eta beharrezkoa den beste edozer definitzea eta estandarizatzea.
- Erabakitzen den prozedura aplikatzea.
- Lagapenaren bitartez harremanak eta elkarreekiko konfidantza sortzea, EGK eta gazte eragileen arteko sarea eraikiz.

ekintzak eta epeak (kronograma)

EKINTZAK

- Material eta gelen lagapenaren prozedurak eta dokumentuak definitu
- Material eta gelen lagapena

KRONOGRAMA

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
■											
■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■	■

hartzaileak

- EGK-ko elkarteak eta gazte eragileak oro har
- Gizartea orokorrean, eta gazteak bereziki.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Prozeduraren eraginkortasuna
 - Kalitatean
 - Kopuruan
- Lagapena burutu izanagatik, eragileekin hobetu eta lortu diren harremanak

3.3.2 Gazte eragileei aholkularitza

deskribapena

Parte-hartu nahi duten gazteei eta gazte eragileei laguntza eskaintzea Parte-hartze arloaren zeregin nagusietako bat da. Lan hau egiteko asmoz modu proaktiboak (eskaeraren aurretik EGK bera hurbiltzea) eta jasotzaileak (jasotako eskakizunei erantzutea) erabili beharko dira. Guzti hau praktikara eramateko, I2013ri esker oso tresna praktikoa lortu du EGK-k, eta bertan jasotzen dena kontuan hartuko du.

helburuak

helburu orokorra

Gazteek eta eragileek dituzten beharrak, kezkak, proposamenak eta dudak entzutea eta modu egokian bideratzea



Helburu zehatzak

- Kanpoko eragileei ere aholkularitza eskaintzea, EGK-n ordezkatura ez dagoen eremuak bereziki kontuan hartuz.
- Sare ezberdinetan parte-hartzea euren ideiak jasotzeko eta EGKrenak transmititzeko (Sareginez, etab.)
- Batzorde Iraunkorrari informazioa, aholkularitza, hausnarketak eta diagnostikoak eskaintzea, parte-hartzearen inguruko posizionamenduak landu ditzan.
- Urtea amaitu baino lehen behintzat deialdi ireki bat burutzea, parte-hartzearen inguruko eskakizunak eta kezkak jasotzeko. Honekin batera, aurreko hilabeteotan lortutako pisuarekin hurrengo plangintzari begira parte-hartzea nola lantzen jarraitu EGK-n definitzen hastea.

Ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintzak

- █ Gazte eragileei aholkularitza.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Parte hartu nahi duten gazteek
- Gazte eragileak (EGK-koak eta kanpokoak)
- Gazteria, orokorrean

jarraipenerako eta ebaluaketarako irizpideak

- Harremanen kopurua eta edukia
- Kanpoko eragileetara hurbiltzeko gaitasuna

3.3.3 Kide eta eremu berriak EGK-ra hurbildu

deskribapena

I2013 ikerketari esker, EGK-ren baitan ordezkatura ez dauden eremu batzuetara iritsi zen Parte-hartze arloa, kontaktu berriak lortuz. Honetaz gain, EGK-ren arlo ezberdinen lana dela eta, gero eta talde gehiagok dute harremana EGK-rekin.

Eraiki den sare hau indartzeko eta handitzeko nahian, EGK-rekin elkarlanean aritzeko prest dauden eragile berriak lortzen eta mantentzen ahaleginduko da Parte-hartze arloa.

helburuak

- Gazte eragile berriak EGK-rekin harremanetan jartzea.
- Azken urteetan lortutako kontaktuekin harremana ahalbidetzea eta egonkortzea.



- EGK-ren baitan ez dauden eremuak jorratzen dituzten beste eragileekin harremanetarako berezko saiakera egitea.
- Gazte eragileentzako Gidaren informazioa eskaintzea.
- EGK-rekin elkarlan iraunkorra edo kide bihurtzea lortzea.
- Lan hau Presidentearekin koordinatu eta bideratu

Ekintzak eta epeak (kronograma)

Ekintzak

- Kide berriak hurbiltzea

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK-tik kanpoko gazte eragileak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Harremanetan jarri diren eragileen kopurua eta harreman hauen kalitatea (egonkortasuna).
- Ukitutako esparru ezberdinak.

3.4 ERAKUNDE PUBLIKOekin ELKARLANA

deskribapena

Berria izateagatik, erakunde publikoekin harremana izateari iaz ekin zion lehen aldiz parte-hartze arloak. Euskadi osoan gazteen inplikazioa lortzeko asmoz ahalik eta erakunde publiko gehienak kontuan hartzea garrantzitsua da, bereziki tokian tokiko lanari begira.

Harreman instituzional honek seriotasuna eta zilegitasuna ere ematen dio EGK-ri, eguneroko lanak babes ofiziala jasotzen duen neurrian. Zentzu honetan, etorkizunari begira oso modu baliagarria izan daiteke proiektu berriei bidegarritasuna emateko.

helburuak

Helburu orokorra

Lortutako harreman instituzionalak mantentzea eta harreman berriak garatzea, parte-hartzearen berezko ikuspegitik. Praktikara eramateko bideak (proposamen praktikoak) aztertzea.

Helburu zehatzak

- Eusko Jaurlaritzarekin harremana sakontzea (GEB barne).
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin (Herritarren Partaidetza) hasitako elkarlanari jarraipena



ematea.

- Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiko parte-hartzea lantzen duten arloekin harremana hasi eta garatzea.
- Lurralde bakoitzeko Aldundiak egiten dituen eskaerei erantzutea.
- Beste mailako erakundeei gurekiko harremana izatea eskaintzea.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Erakunde publikoekin harremana

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK erakunde gisa.
- Administrazioak.
- Gazteak, oro har

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Lortutako harremanen kopurua eta kalitatea
- Harreman horietatik lortutako akordioak eta ekintza praktikoak.
- Epe labur eta ertainean garatu daitezkeen proiektu berriak.

3.5 EGUNEROKOTASUNA

deskribapena

Arlo bakoitzaren lan zehaztatetik aparte, teknikariok egoitzaren kudeaketa lanetan lagundu behar dugu: telefonoari arreta eta deribazioa; hurbiltzen denari arreta eta deribazio zerbitzuak eskaini; materiala, dokumentazioa, eskutitzak, emailak... jaso artxibatu eta deribatu; oinarrizko bulego materialaren egoera aztertu eta erosketa eskaerak bideratu; informatika zerbitzuaren mantenuan lagundu; agenda egunean eraman eta koordinatu...

helburuak

- Egoitzetako lan teknikoak eta kudeaketa zereginak aurrera eramatea

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Egunerokotasuneko lanak



Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Lantalde teknikoa
- EGK-o elkarteak
- EAEko elkarte sareak
- EAEko administrazioak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Jasotako hobekuntzarako proposamenak



4. KOMUNIKAZIOA

4.1 'RECACCIONA' BIDEO LEHIAKETA: "GAZTEAK & ENPLEGUA"

* Ikusi ere Enplegua eta Etxebizitza arloko *Prekarietatearen aurkako prebentzioa* proiektua.



deskribapena

"Parte hartzeko garaia da" lelopean, RECacciona bideo lehiaketaren lehenengo edizioa gauzatu zuen arrakastaz Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak 2013an. Aurten, 2014an, **lehiaketaren bigarren edizioa** abiatuko du EGK-k. Hauxe izango da gaia: *Gazteak & Enplegua*.

Proiektu hau Komunikazio eta Enplegu teknikariek abiatuko dute elkarlanean, *Gazteria & Enplegua* lantalde irekiaren ahotsa aintzat hartuz.

helburuak

Orokorrak:






- Euskal gazteriak enplegu-arloan bizi dituen **prekarietate errealitateak ikustarazi** eta egoerari aurre egiteko **proposamenak** gizarteratu.

Zehatzak:

- Enplegu arloan gazte eta gazte-elkarte ezberdinek dituzten **ikuspuntuak** eta proposamenen berri jaso.
- Gazteon artean enplegu politikei buruzko **hausnarketa eragin**.
- EGK-k *gazteria&enplegu* arloan egiten duen lana ezagutarazi.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

-  Bideo-lehiaketaren oinarriak idatzi.
-  Bideo-lehiaketan parte-hartzeko deialdia egin.
-  Bideoak jaso eta gizarteratu.
-  Bideo onenak aukeratu.
-  Sariak banatu eta bideoen gizarteratze lana egin.



Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

Lehiaketako parte-hartzaile moduan:

- Norbanako gazteak.
- EGK osatzen duten elkarteak.
- Bestelako gazte mugimenduak.

Bideoen hartzaile moduan:

- Norbanako gazteak.
- EGK osatzen duten elkarteak.
- Bestelako gazte mugimenduak.
- Gazteria teknikariak.
- Gazteria arloko politikariak.
- Komunikabideak.

Jarraipena eta ebaluazio irizpideak

Komunikazio teknikariak eta enplegu teknikariak egingo dute ebaluazioa, Batzorde Iraunkorreko Komunikazio eta Enplegu arduradunekin batera, hainbat irizpideren arabera:

- Jasotako bideo kopurua.
- Jasotako bideoen mezuen edukia.
- Jasotako bideoen kalitatea.
- Bideoen ikustaldi kopurua.
- Sare sozialetan eragindako mugimendua.
- Komunikabideetan agerpenak.
- Jasotako iradokizun eta proposamenak.



4.2 'GAZTEONTZAT ENPLEGU DUINA' KOMUNIKAZIO KANPAINA

* Ikusi ere Enplegua eta Etxebizitza arloko *Prekarietatearen aurkako prebentzioa* proiektua.

deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Enplegu eta Etxebizitza arloak garatuko duen *Prekarietatearen aurkako prebentzioa* lan-ildoaren baitan, **gazteontzat enplegu duina aldarrikatzeko komunikazio kanpaina** abiatuko du Komunikazio teknikariak, enplegu eta etxebizitza teknikariarekin batera.

helburuak

Orokorrak:

- Gazteek sufritzen duten **prekarietate errealitateak ezagutarazi** eta egoerari aurre egiteko EGK-ren **proposamenak** gizarteratu.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Kanpaina prestatu (irudia, erredakzioa, maketazioa, inprenta, komunikabide-plana...).
- Kanpaina gauzatu (banaketa, prentsaurrekoa, sare-sozialetan zabalpena...).

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Enplegu eta gazteria arloetako politikari eta teknikariak.
- Sindikatuak, gizarte eragileak eta gazte eragileak.
- Gizartea oro har eta gazteak bereziki.

Jarraipena eta ebaluazio irizpideak

- Euskarri fisikoaren eragina: hartzaile kopurua, hartzaile mota, erreakzioak (idatziz jasotako iruzkinak, ahoz-adierazitako iritziak...).
- Sare sozialetan eragina: ikustarazpenak, klik kopurua, elkarbanatze maila, elkarreragin maila.
- Komunikabideetan agerpenak: kopurua eta nolakotasuna.



4.3 'EKINTZAILETASUNAREN ALDE IZKUTUA' KOMUNIKAZIO KANPAINA

* Ikusi ere Enplegua eta Etxebizitza arloko *Emperdedores: la cara oculta del emprendizaje* proiektua.

deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Enplegu eta Etxebizitza teknikariak ekintzaitasunaren 'B aldea' ezagutzeko lana garatu du 2013an eta 2014ko lehen hilabeteetan: alegia, ekintzaile gazteek bizi dituzten errealitateak aztertu ditu (oztopoak, aukerak, bizipenak...). Lan hori guztiaren berri emateko, aurten komunikazio kanpaina gauzatuko du Komunikazio teknikariak Enplegu eta Etxebizitza teknikariarekin batera. Horretarako, hainbat euskarri aurreikusten ditu, tartean **argitalpen bat eta ikus-entzunezko** formatua.

helburuak

Orokorrak:

- Ekintzaitasuna eta autoenplegua sustatzeko politika publikoek **gazterian sortarazten dituzten eskubideen urraketak** eta bestelako 'B aldeak' ezagutaraztea.

ekintzak eta epeak

- Kanpaina diseinatu.
- Kanpaina gauzatu.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- EGK-ko elkarteak.
- Bestelako elkarte eta gizarte mugimenduak.
- EGK-ko jarraitzaileak (buletineko harpidedunak, sare-sozialetako jarraitzaileak...).
- Komunikabideen irakurle/entzule/ikusleak.
- Instituzioak.

Jarraipena eta ebaluazio irizpideak

- Kanpainaren berri izaten duten pertsona kopurua.
- Gizartearekin elkarreragina (iruzkinak, elkarbanatze maila...).
- Komunikazio kanpainaren edukiaren nolakotasuna.
- Eredu politikoan eragina (erantzunak, erreakzioak...).



4.4 'GAZTEONTZAT PARTE HARTZERAKO ERREZETAK' BIDEOA

* Ikusi ere Parte-hartze arloko *Parte hartze ikerketaren txostenaren jarraipena eta zabalpena* proiektua.

deskribapena

Parte-hartze arloak *Parte hartzearen inguruko ikerketa* egin du 2013an, eta 2014rako *Parte hartze ikerketaren txostenaren jarraipena eta zabalpena* egitea aurreikusi du. Proiektu horren baitan, Komunikazio teknikariak txosten horren emaitzen komunikazio kanpaina diseinatuko du, Parte-hartze teknikariarekin batera. Zehazki, hauek dira aurreikusitako bi ekintza nagusiak: emaitzak publikoki aurkeztu eta dibulgaziozko bideo bat ekoiztu.

helburuak

Orokorrak:

- Gazteon parte-hartzeak gaur egun dituen **oztopoen berri eman eta proposamenak** plazaratu.

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Txostenaren aurkezpena komunikabideetan.
- Bideoa egiteko lana (gidoia, ekoizpena, grabazioa, edizioaren kudeaketa...).
- Bideoaren aurkezpen publikoa.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Norbanako gazteak.
- EGK osatzen duten elkarteak.
- Bestelako gazte mugimenduak.
- Gazteria teknikariak.
- Gazteria arloko politikariak.
- Komunikabideak eta komunikabideen irakurle/entzule/ikusleak.

Jarraipena eta ebaluazio irizpideak

- Komunikabideetan agerpenak (komunikabide-kanpaina).
- Bideoaren kalitatea (edukia, ezaugarri teknikoak, hizkuntza-eskubideak...).
- Bideoaren ikustaldi kopurua.



4.5 GAZTE ERAGILEENTZAKO GIDA

* Ikusi ere Parte-hartze arloko *Gazte eragileentzako gida* proiektua.

deskribapena

Parte-hartze arloak eta Komunikazio arloak *Gazte eragileentzako gida* argitaratuko dute elkarlanean. Zehazki, Parte-hartze teknikaria arduratuko da gidaren edukiaz eta aurrelanaz (gazte-eragileen kezkek jaso, administrazioarekin bildu, datu-bilketa egin...), eta ondoren forma emango dio Komunikazio teknikariarekin batera.

helburuak

Orokorrak:

- Gazte-eragileen **parte hartzea errazteko gida** eskaini.

Zehatzak:

- Elkartegintzaren inguruko **zalantzak argitu** (formalki erregistratzearen abantaila eta desabantailak, finantzazio-baliabideak, kontaktu interesgarriak...).

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- Parte-hartze teknikariaren aurrelana (dokumentazio-bilketa, elkarten kezken zundaketa, administrazioarekin bilerak...).
- Gidaren idazketa.
- Gidaren diseinu eta maketazioa.
- Gidaren zabalpena.

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
				█	█	█	█	█	█	█	
									█	█	
										█	█

hartzaileak

- Norbanako gazteak.
- EGK osatzen duten elkarteak.
- Bestelako gazte eragileak.

Jarraipena eta ebaluazio irizpideak

- Gidaren kalitatea (edukia, diseinua, formatua).
- Gidaren euskarri fisikoaren hartzaile kopurua eta profila.



- Sare sozialetan eragina: ikustarazpenak, klik kopurua, elkarbanatze maila, elkarreragin maila.
- Erreakzioak (idatziz, ahoz).

4.6 PIZTU! BULETINA

deskribapena



Gazteek gazteentzat egindako **buletin digitala** da.

Bi-hiru astean behin jasotzen dute hartzaileek, honako edukiekin:

- Euskadiko Gazteriaren kontseiluaren **azken albisteak**.
- EGK-ko kide diren **elkarteen jardueren** berri.
- Bestelako gazte eragileen jardueren berri.
- **Komunikabide** ezberdinek gazteei buruz eta gazte elkartegintzari buruz argitaratzen dituzten albisteak.

helburuak

HELBURU OROKORRA

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren, gazte elkarten eta bestelako gizarte eragileen lana eta deialdiak **ikustaraztea** eta balioan jartzea.

HELBURU ZEHATZAK

- Komunikazio baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileei komunikazio **euskarri bat eskaintzea**.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarten eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien **aniztasuna** ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%60 gutxienez euskaraz).

ekintzak

Bi/hiru astean behin bidaltzen du EGK-k Piztu buletina.

hartzaileak

1.427 harpidedun:



- EGK-ko elkarteak.
- Beste gizarte mugimendu batzuk.
- Gazte-bulegoak.
- Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
- Harpidetza egin duten norbanakoak.

Sare sozialetako 6.000 jarraitzaileak:

(3.472 Facebook, 1.467 Twitter, 1.024 Tuenti, 2013ko abenduaren 9an).

- EGK-ko elkarteak, beste gizarte mugimendu batzuk, norbanakoak, gazte informazio bulegoak...

jarraipena eta ebaluazio irizpideak

Komunikazio arloak Piztu buletinaren ebaluazioa egingo du urte-amaieran, alde z aurretik finkatutako irizpideak jarraituz:

- Maiztasuna.
- Harpidedun kopurua/mota.
- Albisteen aniztasun maila.
- Buletinean agertutako eragileen aniztasun maila.
- Jasotako iradokizunak.

4.7 BERRIZ BERRI POSTERRA



deskribapena

1999az geroztik, milaka gazte elkarte, jendarte mugimendu, liburutegi, institutu, fakultate, alderdi, politikari, sindikatu eta gazte bulegok jaso duten poster-agenda da Berriz Berria. Bertan, **hilero-hilero 10-12 albiste** argitaratzen ditu Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Orokorrean, baliabide gutxi dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileen deialdiak biltzen ditu posterrak, bai eta gazte-zerbitzu zein parte-hartzerako euskal agentziena ere. Gehienetan elkarteek edo gizarte eragileek eurek bidaltzen dituzte bere deialdiak eta albistek Gazteriaren Kontseiluko Komunikazio Arloran, Berriz Berrian argitaratu ditzan. Bestela ere, komunikazio teknikariak bestelako albiste batzuk ere aukeratzen ditu posterrean xertatzeko. Horrez gain, enkarteak ere egiten ditu EGK-k: hau da, elkarteek beraiek hala



eskatuta, eskuorriak, kartelak, bideoak edota txostenak bidaltzen ditu Berriz Berriarekin batera.

Zehazki, EAEko **1.350 postontzi** ezberdinetara iristen da, paperean. Gazte-elkarteei, beste gizarte mugimenduei, gazte bulegoei, udaletxe eta aldundietako gazteria arloei eta liburutegi eta gizartetxeei bidaltzen die Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak. Horrez gain, Piztu! buletinarekin batera **beste 1.427 helbidetara iristen da**. Gainera, **Tuenti, Twitter eta Facebooken Gazteriaren Kontseiluak dituen ia 6.000 jarraitzaileei ere** helarazten zaie Berriz Berri poster agenda. Horiei guztiei www.egk.org webgunearen bisitariak gehitu behar zaizkie (28.000 bisita baino gehiago urtean), bertatik ere deskargatu baitaiteke.

helburuak

Orokorra

Gazte elkarten eta gizarte eragileen **lana eta deialdiak ikustaraztea** eta balioan jartzea.

Zehatzak

- Komunikazio **baliabide gutxi** dituzten gazte elkarte eta gizarte eragileentzat *komunikazio euskarri bat eskaintzea*.
- Gazte elkarteek eta gizarte eragileek beste elkarte eta eragile batzuk egiten dutenaren berri jasotzea.
- Gazte elkarten eta gizarte eragileen lanaren eta deialdien **aniztasuna** ikustarazi eta balioan jartzea.
- Euskara sustatzea (%70-90 euskaraz).

ekintzak eta epeak

- Hilero.

hartzaileak

- **Papereko alearen 1.350 harpidedun EAEn:**
 - EGK-ko elkarteak.
 - Beste elkarte batzuk.
 - Gazte-bulegoak.
 - Liburutegi eta gizartetxeak.
- **Piztu! buletinaren bitartez 1.427 harpidedun:**
 - EGK-ko elkarteak.
 - Beste gizarte mugimendu batzuk.
 - Gaztetxeak.
 - Gazte-bulegoak.
 - Gazteria arloko teknikari eta politikariak.
 - Harpidetza egin duten norbanakoak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Urte amaieran, komunikazio arloak Berriz Berri-aren ebaluazioa egingo du, hainbat irizpide jarraituz:



- Epeen betetze-maila.
- Albisteen eta eragileen aniztasuna.
- EGK-ko elkarten erabilera-maila.
- Enkarte kopurua eta kalitatea.
- Jasotako iradokizun eta proposamenak.

4.8 WWW.EGK.ORG WEBGUNEA



deskribapena

Webgunearen (www.egk.org) kudeaketa egin behar du egunero Komunikazio teknikariak: EGK-ko albisteen berri emateko, **EGK-ko elkarten eta bestelako gazte jardueren berri** emateko eta gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak zabaltzeko.

helburuak

Orokorrak:

- Gazteei eta gazte-elkartei zerbitzu bat eskaini.
- EGK-ren marka kudeatu.

Zehatzak

- EGK-ren azken albisteen berri ematea.
- EGKren **argitalpenak** interneten eskuragarri jartzea.
- **EGK-ko elkarten** eta EGK-koak ez diren elkarten jardueren berri ematea, webguneako agendan.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen **komunikabideetako albisteak** jasotzea.
- Elkarten **zerrenda gaurkotu** bat mantentzea.

ekintzak eta epeak

Urte osoan zehar garatzen den lana da.

Egunero:

- Webgunea edukiz hornitu.
- Webgunearen mantentze egokia bermatu (spam ezabaketa, iruzkinen kudeaketa).

Hilabetero:



- Webgunearen atal finkoagoak gaurkotu (elkarteen helbideak, goiburua, bannerrak...).

Urtean behin:

- Webgunean berrikuntzak kudeatu (aldaketak eta aplikazio berriak aurreikusi).

hartzaileak

2013ko datuen arabera, webguneak **ia 30.000** bisita ditu urtean.

Bisitarien **%61a, 18-34 urte** bitartekoa da.

%46a emakumea, eta **%54a** gizonezkoa.

Bisita gehienak **Bilbo, Donostia eta Gasteiztik** eginak dira, batez ere ordenagailutik (%85).

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Google Analytics bitartez neurtzen ditu Komunikazio Arloak webgunera bisitak.

4.9 SARE SOZIALEN KUDEAKETA



deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak hainbat sare sozial erabiltzen ditu bere lanerako garrantzitsua izan daitekeen **informazioa jasotzeko**, bere lana **ezagutarazteko** eta gazteei, elkarteei eta bestelako eragileei **zerbitzua** emateko. Zehazki, Twitter, Facebook, Tuenti eta Youtube erabili ohi ditu EGK-k.

helburuak

Orokorrak:

- EGK-rentzat garrantzitsua izan daitekeen **informazioa** biltzea.
- Gazteei eta gazte-elkarteei **zerbitzu** bat eskaintzea.
- EGK-ren **marka** kudeatzea.



Zehatzak

- Gazte elkarteen azken albisteak ezagutu, baita gazteria arloko bestelako eragileen azken orduaren berri izatea ere. .
- EGK-ren azken albisteen berri ematea.
- Gazte eragileen albisteen eta agenda-deialdien berri ematea.
- Gazteei buruz edo gazteentzat interesgarriak izan daitezkeen azken orduko albisteak ematea.

ekintzak eta epeak

Sare sozialen kudeaketa urte osoan zehar egiten da.

Egunero:

- Monitorizazioa egin: zer esaten dute EGK-ri buruz?
- Informazio bilketa egin: zer gertatzen ari da gazteria eta parte-hartzearen arloan?
- Edukia eskaini: EGK-ren jarduerak, bestelako elkarteen deialdiak, gazteria-esparruko albisteak...

Hilabetero:

- Profilak berritu (profilaren argazkia etab.).
- Etengabeko ebaluazioa egin (bisita kopurua, elkarreragina, jarraitzaileen profila...).

Urtean behin:

- Webgunean berrikuntzak kudeatu (aldaketak eta aplikazio berriak aurreikusi).

hartzaileak

Guztira, ia **6.000 jarraitzaile**: 3.472 Facebooken, 1.467 Twitterren, 1.024 Tuentin eta 16 Youtuben, 2013ko abenduaren 9ko datuen arabera (Iturriak: TweetStats, SocialBro, Facebook, Twitter, Tuenti).

Profilak: gazteak, gizarte arloko gaietan interesa duten bestelako norbanakoak, gizarte mugimenduak, Administrazioako gazteria zerbitzuak eta gazteria politikariak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Sare-sozialen kudeaketaren ebaluazioa egiteko, hainbat tresna erabiltzen ditu komunikazio teknikariak: TweetStats eta SocialBro, bai eta Facebook, Twitter eta Tuentiren datu zuzenak ere.

Hauek dira jarraipena egiteko adierazleetako batzuk: irismena, inpresio kopurua, klik kopurua, elkarreragina, jarraitzaileen generoa, jarraitzaileen hizkuntza, autoritate-maila, erabilitako hashtagen eragina...).



4.10 KOMUNIKABIDEEN BITARTEZKO BESTELAKO KANPO KOMUNIKAZIOA



deskribapena

EGKren ekintza zein EGK-k parte hartzen duen ekimenen hedapena egin.

- **Prentsaurrekoak** / prentsa-oharrak egin.
- **Iritzi-artikuluak** txertatu.
- Deialdiak **egunkarietako agendan** argitaratzea kudeatu.
- **Elkarrizketak** lotu.
- Kazetarien eskaerak/proposamenak **kudeatu**.
- Komunikabideen agerpenen **txostenak** egin.

helburuak

Orokorrak:

- EGKren jarduera eta iritziak, bai eta EGK-k parte hartzen duen plataforma eta ekimenen jarduera eta iritziak ere, hedabideen bitartez gizarteratu.

ekintzak eta epeak

Aurreikusitako komunikazio-kanpainetaz aparte (2014an, "Ekintzailetasunaren B aldea", "Parte hartze errezetak", "Gazteontzat enplegu duina" eta aisialdi taldeen udalekuen gizarteratzea), unean-uneko beharren arabera garatzen dira bestelako komunikazio-jarduerak, urte osoan zehar:

- Aldian-aldiko prentsaurrekoak / prentsa-oharrak / manifestuak / komunikatuak (...).
- Protokoloen aktibazioa (lan-istripuak, gaztetxeen hustea...).
- Deialdiak agendatan txertatu.
- Iritzi artikuluak idatzi eta txertatu.
- Elkarrizketak lotu.
- Komunikatuak idatzi, zuzendu, bidali...



hartzaileak

Komunikabideetako irakurle/entzule/ikusleak
EGK osatzen duten elkarteak eta beste gizarte mugimendu batzuk.
EGK Internet bitartez jarraitzen duten gazteak eta norbanakoak.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

Kanpaina bakoitzak bere prentsa-txostena dauka eta banan-banakako ebaluazioa egiten da, honako irizpideen arabera: agerpen kopurua, agertutako komunikabideen gizarte-eragina, agerpenen edukiaren nolakotasuna eta argitaratutako informazioaren ahotsak (EGK-ren ahotsa, bestelako iturriak).

4.11 BARNE KOMUNIKAZIOAREN KUDEAKETA

deskribapena

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren baitan komunikazioa errazteko ardura du Komunikazio Arloak, bai teknikarien artean, bai teknikarien eta Batzorde Iraunkorraren artean, bai eta Batzarra osatzen duten elkarteekin komunikazioa ere. EGK-ren barne-komunikazioak EGK-ren funtzionamendua eta eraginkortasuna bera baldintzatzen du.

helburuak

Orokorrak:

- EGK-ren baitako barne-komunikazioa hobetu.

Zehatzak:

- EGK-ko arlo tekniko ezberdinen arteko komunikazioa erraztu.
- EGK-ko lantalde teknikoa eta Batzorde Iraunkorraren arteko komunikazioa indartu.
- EGK-ko Batzarra osatzen duten elkarteekin barne-komunikazioa hobetu.
- EGK-ko lantalde teknikoari eta Batzorde Iraunkorrari komunikazio-laguntza eman

ekintzak eta epeak

- Urte osoan zehar hainbat lan egin behar ditu komunikazio arloak EGK-ren barne komunikazioa ahalik eta emaitza onenak izteko:
- EGK-ren lanarekin zerikusia duten gaurkotasunezko albisteak bildu eta **langileen artean banatu**, baita Batzorde Iraunkorrari helarazi ere, aproposa denean
- EGK-k komunikabideetan dituen **agerpenak** teknikariei eta Batzorde Iraunkorrari, EGK-ren inguruan esaten den guztiaren inguruan jakinaren gainean egon daitezen.
- Batzorde Iraunkorrek eta Batzarreko elkarteek EGK-ren **jardunaren berri jasotzen dutela bermatu**, EGK-ren tresnen bitartez (buletin digitalak, e-maila...).
- Teknikariei eta Batzorde Iraunkorrari **komunikazio-laguntza** eman (zuzenketak, aholkularitza, estilo-ildoak...).



hartzaileak

- EGK.

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

2014ko azken hiruhilekoan barne-komunikazioari buruzko diagnostiko-bilera egingo du Komunikazio Arloak Batzorde Iraunkorreko komunikazio arduradunekin batera. Era berean, Batzarra osatzen duten elkarteek bidaltzen dituzten iradokizun eta balorazioak jasoko ditu.

4.12 BESTELAKO LANAK

- Unean-unekeo beharrak: **bisita-txartelak berritu, sinadura digital** berriak egin...
- Barne lana: **bilera** teknikoak, Batzorde Iraunkorrarekin bilerak, Indartzen prozesuan parte-hartzea, Batzar Orokorra, urteko plangintzak eta memoriak idatzi...
- Egoitzako **kudeaketa lana** egin (jendarteari harrera, material-lagapenak, konponketen kudeaketak...).



5. GASTEIZKO GAZTE CAPITAL

Azaroan GazteCapital prozesua abiatu zen. Udal politiketan gazteen partehartzea sustatzeko helburua du baina aurrekontu faltaren ondorioz, jatorrizko proiektua moldatu behar izan da. Proposamen berria, GazteTopa espazioa eta Hiruburu espazioa martxan jartzean datza.

5.1 GazteTopa



GazteTopa, gazteria biltzeko espazio bat da. Bertan, elkarrekin dauden gazteek zein norbanakoek parte har dezakete. Dagoeneko asanblada bat egin da eta bertan 20 gazte elkartu ziren. Hauetatik 19, elkarte bateko kideak dira. Talde hau handitzen jarraitzeko asmoa dago.

5.1.1 European Youth Capital

deskribapena

EYC sarian (European Youth Capital), gazteriarri begira hiri baten egokitasuna baloratzen da. Aurrekontu falta dela eta, ezinezkoa izango da aurten hautagaitza horretara aurkeztea baina etorkizun batean egitea baztertzeko ez denez, hautagaitza nolako izan behar duen aztertzen eta proposatzen has gaitzke.

helburuak

Helburu orokorra

EYC sarirako zer nolako hautagaitza aurkeztu nahiko genukeen aztertzea.

Helburu zehatzak

- Hautagaitzaren ezaugarri nagusiak zeintzuk diren ezagutzea
- Aurkeztu diren beste hirietako esperientzietara gerturatzea (honetarako finantzazioa beharko genuke)



- Gasteizek dituen indarguneak eta ahulguneak identifikatzea
- Ahulguneak gainditzeko proposamenak eztabaidatu eta adostea
- Hautagaitzaren elementu nagusiak definitzen hastea: leloa, formatoa, jarduerak, kanpaña komunikatiboa...
- Ekainean edo urrian GazteCapitalaren laborategia izango den Gazte aste bat antolatu daiteke (honetarako finantzazioa beharko genuke)
- Gasteizko gazteen eskubideen karta bat adostea eta ezagutzera ematea (honetarako finantzazioa beharko genuke)

ekintzak eta epeak

Ekintzak

- GazteTopako bilerak
- Indarguneak eta ahulguneak identifikatu
- Ahulguneak gainditzeko proposamenak
- Gazte Capitalera aurkezteko baldintzak ezagutzeko saioa
- Aurkeztu den hiri bateko gazteen esperientzia ezagutu
- Hautagaitzaren elementu nagusiak definitu
- Finantzazioa bilatu. Adibidez: Erasmus+
- Gazte Capitalaren laborategia (2 aukera)
- Gasteizko gazteen eskubideen karta osatu eta aurkeztu

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
GazteTopako bilerak											
Indarguneak eta ahulguneak identifikatu		Indarguneak eta ahulguneak identifikatu		Indarguneak eta ahulguneak identifikatu		Indarguneak eta ahulguneak identifikatu		Indarguneak eta ahulguneak identifikatu		Indarguneak eta ahulguneak identifikatu	
Ahulguneak gainditzeko proposamenak		Ahulguneak gainditzeko proposamenak		Ahulguneak gainditzeko proposamenak		Ahulguneak gainditzeko proposamenak		Ahulguneak gainditzeko proposamenak		Ahulguneak gainditzeko proposamenak	
Gazte Capitalera aurkezteko baldintzak ezagutzeko saioa		Gazte Capitalera aurkezteko baldintzak ezagutzeko saioa		Gazte Capitalera aurkezteko baldintzak ezagutzeko saioa		Gazte Capitalera aurkezteko baldintzak ezagutzeko saioa		Gazte Capitalera aurkezteko baldintzak ezagutzeko saioa		Gazte Capitalera aurkezteko baldintzak ezagutzeko saioa	
Aurkeztu den hiri bateko gazteen esperientzia ezagutu		Aurkeztu den hiri bateko gazteen esperientzia ezagutu		Aurkeztu den hiri bateko gazteen esperientzia ezagutu		Aurkeztu den hiri bateko gazteen esperientzia ezagutu		Aurkeztu den hiri bateko gazteen esperientzia ezagutu		Aurkeztu den hiri bateko gazteen esperientzia ezagutu	
Hautagaitzaren elementu nagusiak definitu		Hautagaitzaren elementu nagusiak definitu		Hautagaitzaren elementu nagusiak definitu		Hautagaitzaren elementu nagusiak definitu		Hautagaitzaren elementu nagusiak definitu		Hautagaitzaren elementu nagusiak definitu	
Finantzazioa bilatu. Adibidez: Erasmus+		Finantzazioa bilatu. Adibidez: Erasmus+		Finantzazioa bilatu. Adibidez: Erasmus+		Finantzazioa bilatu. Adibidez: Erasmus+		Finantzazioa bilatu. Adibidez: Erasmus+		Finantzazioa bilatu. Adibidez: Erasmus+	
Gazte Capitalaren laborategia (2 aukera)		Gazte Capitalaren laborategia (2 aukera)		Gazte Capitalaren laborategia (2 aukera)		Gazte Capitalaren laborategia (2 aukera)		Gazte Capitalaren laborategia (2 aukera)		Gazte Capitalaren laborategia (2 aukera)	
Gasteizko gazteen eskubideen karta osatu eta aurkeztu		Gasteizko gazteen eskubideen karta osatu eta aurkeztu		Gasteizko gazteen eskubideen karta osatu eta aurkeztu		Gasteizko gazteen eskubideen karta osatu eta aurkeztu		Gasteizko gazteen eskubideen karta osatu eta aurkeztu		Gasteizko gazteen eskubideen karta osatu eta aurkeztu	

hartzaileak

- Gasteizen bizi den edozein gazte 35 urtetik beherakoa
- Gazte elkarteetan dauden gazteak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Espazioaren funtzionamendua, bilera kopurua eta kalitatea.
- Kideen proaktibitatea.
- Parte hartzaileen kopurua: elkarteetan daudenak eta norbanakoak ezberdinduz
- Egiten diren proposamenei Udalean jasotako atxikimendu maila: zenbat alderdik bat egiten dute proposamenarekin
- Proposamenen eragina Udaleko gazteria politketan
- GazteToparen presentzia sare sozialetan eta komunikabideetan



- Gasteizko gazteon eskubideen kartaren zabalpena medioetan eta jendartean

5.1.2 Gasteizko Gazte Plana

deskribapena

Aurten, Udaletxeak III.Gazte Plana abian jartzeko asmoa dauka. Gazte Planaren diseinurako prozesuan gazteriaren partehartzea sustatzen saiatu da baina eragin eskaxa izan du. Ondorioz, GazteTopa gune aproposa izan daiteke Gazte Planaren edukiak aztertzeko, eztabaidatzeko eta proposamen berriak egiteko, hau da, gazteon beharrei erantzungo dien plan bat osatzeko.

helburuak

Helburu orokorra





Udaleko III. Gazte Planari ekarpenak egitea

Helburu zehatzak











- Gazte Plana diseinatzeko jarraitzen den prozesua ezagutzea
- III. Gazte Planaren edukiak ezagutzea
- Gazte Planaren prozesuaren gainean ekarpenak egitea gazteon partehartzea ahalbidetzeko
- Gazte Planaren edukien gainean ekarpenak egitea gazteon errealitatera hurbildu dadin eta behar errealak asebetu ditzan
- Gazteon problematikak eta ahotsa mahaigaineratzea

ekintzak eta epeak

Ekintzak

-  Gazte Plana: Diseinua, prozesua eta eduki nagusiak ezagutzeko saioa
-  Gazte Plana aztertzeko eta ekarpenak egiteko saioak
-  Gasteizko gazteok pairatzen ditugun arazoaren identifikazioa
-  Akzio berriak proposatzea

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											
											

hartzaileak

- Gasteizen bizi den edozein gazte 35 urtetik beherakoa
- Gazte elkarteetan dauden gazteak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Parte hartzaileen kopurua: elkarteetan daudenak eta norbanakoak



- Egiten diren proposamen kopurua
- Egiten diren proposamenetatik, Udalak onartzen dituenen kopurua
- Parte hartzen duten gazteen asebetetze maila
- Gazteria arloko teknikarien eta arduradun politikoen asebetetze maila

5.1.3 Gazte Koordinadora

deskribapena

GazteTopako lehenengo saioan hainbat partehartzailek esan bezela, elkarteen artean ez dute elkar ezagutzen. Bakoitza bere dinamika propioak garatzen ditu eta elkarteen arteko elkarlana eskaxa izan ohi da. Horrez gain, kontutan izan behar da oso talde anitza dela, ideologikoki, funtzionalki, jatorriari dagokionez, etab. Hori dela eta, GazteTopa ezezagutza hori gainditzeko aukera bat izan daiteke.

helburuak

Helburu orokorra

Gazte elkarteen arteko ezagutza eta elkarlana bultzatzea

Helburu zehatzak

- Gazterian dagoen aniztasuna (eta problematika aniztasuna) azalerratu
- Perfil ezberdina duten gazteen artean iritzia trukatzeko
- Elkarteek gazteei begira prestatzen duten agenda partekatzea eta koordinatzea
- Elkarlana bultzatzea

ekintzak eta epeak

Ekintzak

Kasu batzuetan jarduera zehatzak egingo badira ere, orokorrean maila transbersalean landuko dira aipatutako helburuak

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE

hartzaileak

- Gasteizen bizi den edozein gazte 35 urtetik beherakoa
- Gazte elkarteetan dauden gazteak

jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Elkarte ezberdinen artean antolatzen diren jarduera kopurua eta hauen balorazioa (positiboa edo negatiboa)
- GazteTopako saio bakoitzean betetzen duten ebaluazio orria



5.2 Hiruburua

Hiriburua, gazteria eta Udalaren arteko zubi lana egiteko espazioa litzateke. Oraindik sortzeke dago. Izan ere, lehenengo lana GazteTopa sortu eta egonkortzea da. Asmoa da martxoan gune honen lehenengo saio bat burutzea.

deskribapena

Hiruburua, gazteak, orezkari politikoak eta udal teknikariak biltzeko espazioa izango da. *Gazteekin!*-eko edota *Campamento en el Parlamentoko* ondorioak aintzat hartuta, gazteen eta instituzioen arteko komunikaziorako gune iraunkor bat sortzea aproposa izan daiteke.

helburuak

Helburu orokorra




Gazteen eta instituzioen arteko komunikazioa bermatzea

Helburu zehatzak







- Gazteen eta instituzioen artean dagoen mesfidantza gainditzea eta distantzia laburtzea, aurreiritzien identifikazioaren bidez
- Gazteek Udalean egiten den lana eta bertan dauden kezkak ezagutzea
- Udalak gazteek egiten duten lana eta dituzten kezkak/ arazoak ezagutzea
- Udal politikak gazteen beharrei modu egokian erantzuten dietela bermatzeko elkarren arteko kolaborazioa bultzatzea.
- Parteharteari buruzko formakuntza bultzatzea (finantzazioa behar)

ekintzak eta epeak

Ekintzak

-  Hiruburu saioak
-  Parteharteari buruzko formakuntza saio bat
-  Finantzazioa bilatu

Kronograma

URT	OTS	MAR	APIR	MAI	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE
											
											

hartzaileak

- GazteTopan parte hartzen duen gazte oro
- Udaleko gazteria teknikariak
- Udaleko gazteria zinegotzia
- Udalean dauden alderdi politikoetako gazteria arduradunak
- Udaleko partehartze teknikariak



jarraipena eta ebaluaketarako irizpideak

- Hiruburuan parte hartzen duten gazteen, teknikarien eta ordezkari politikoek kopurua
- Hiruburuko saioen ondoren beteko diren ebaluazio orriak (giroa, perpektibak, asebetetze maila neurtzeko, besteak beste)
- Elkarlanaren ondorioz abiatzen diren ekimen kopurua



6. BAKE ETA BIZIKIDETZA

2013ko memoria orokorrean jasotzen den moduan, Eusko Jaurlaritzako Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusitik elkarlana egiteko eskaintza jaso zen. Une honetan, arlo hau EGKko ardatz nagusien artean ez badago ere (garai batean bezala), Euskal gizarteak bizi duen une historikoari so eginez, eta gazteok gizarte honetan dugun erantzukizun eta garrantzia kontutan harturik, EJtik jasotako proposamena, beste arloekin egiten den bezala, aztertzea erabaki zen.

Lehenik eta behin, EGKk urte askotan honen inguruan egin duen lana azpimarratu nahi izan da, ez baita berria. Horrez gain, honekiko gazteek daukagun bizi esperientzia ere nabarmendu da.

Azken hilabeteotan, Batzorde Iraunkorraren bitartez, bi entitate hauen arteko plangintza eta hau aurrera eramateko neurriak adosteko ahalegina egin da. Batzarrak plangintza onartuko balu, bien arteko hitzarmen bat sinatuko litzateke zeinak teknikari baten kontratazioa jasoko lukeen jornada erdian. Honela, Kontseiluak lan ildo hau berreskuratuko luke aspaldiko partez.

6.1. BAKE eta BIZIKIDETZA EGK-ko lan ildo bilakatu

deskribapena

Gazteok ZER esan badugula sinestuz, gai honetan gazteongandik abiatutako ekimenengatik apustu egiten da.

Hala ere, bake eta bizikidetzaren arloa EGKko lan ildoan izateak, barne hausnarketa bat eskatzen du. Gazteriaren Kontseiluak izaera anitzeko elkarteak biltzen baititu eta gaiaren garrantzia nabarmena da; hortaz, lehenik honen trataera nolakoa izango den aztertu beharra dago.

Helburuak

Helburu orokorra

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak Bakea eta Bizikidetzaren nola landuko dituen zehaztea. Zergatik eta Zertarako?

Helburu zehatzak

- EGKk arlo honetan duen esperientzia berreskuratu.
- Arlo honetan gazte ikuspegitik egin diren ekimenak ezagutu.
- Egoeraren analisia egin.
- Epe labur-ertainerako helburuak finkatu

ekintzak eta epeak

Ekintzak:

- Batzorde Iraunkorrarekin bilerak.
